ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Malkoak lur antzuan'

Toti Martinez de Lezea. Erein. 296 orr. 20 euro.

Sasoi gogor baten kontakizuna

XX. mendeko 30eko urteetan, Badajozeko herri txiki batean, nekazari bat, Damaso, miseria gorritik atera ahal izateko borrokan bizi da. Eskualde hartako lurrak jauntxoenak dira, eta herriko jendea goseak hiltzen da. Gerrak iraultzen du Damasoren bizitza, ihes egitera behartuta gertatuko baita, eta, bitartean, etxekoak derrigortuak egongo dira ahal duten moduan bizimodua aurrera ateratzera. Handik hogeita hamar urtera, Bizkaiko fabrika batean lanean aurkitzen dugu Damasoren seme Manuel. Garai gogor bati buruzko kontakizuna dakar Toti Martinez de Lezeak oraingo honetan.

ALBUM ILUSTRATUA

'Lagun berriak'

Testua eta ilust.: Tomi Ungerer. Itz.: A. Irazustabarrena. Pamiela. 40 orr. 15 euro.

Arrazakeria-ren aurkako albuma

Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez duelako lagunik, baina gurasoek opari egindako erremintei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz. Egun batean Ki ezagutuko du, auzoan bizi den Asiako bikote baten alaba, eta honek bere burua eskainiko dio panpinak janzteko arropa josteko. Hala, sormenaren bidetik, auzokide izateaz gain, lagun min ere bilakatuko dira. Arrazakeria eta tolerantzia-eza arbuiatzen ditu Tomi Ungererren album ilustratu honek.

ZALDI EROA